



2015KO URRIKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora uninertsalean eman dira. udako ordutegian, gehitu 2 ordu ofiziala kalkulatzeko)

BEHATZEKO PROPOSAMENAK

- Begi hutsez:

Hilaren 1ean, 17:00an, Perseoseko Algol izar aldakorraren distira minimoa. 3,3tik hurbil dago haren magnitudea.

Hilaren 4an, 7an, 10an, 13an, 16an, 20an, 18ean, 21an eta 24an 27an eta 30an izango dira beste minimoak.

Hilaren 3an, 07:00an, Eta Aquilae izarraren distira maximoa, magnitudea 3,5tik 4,4ra aldatzen du 7,177 egunero.

Hileko 10an, 17an eta 24an izango dira beste maximoak.

Hilaren 3an, 19:00an, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen du 5,366 egunero. Hilaren 9an, 14an, 19an, 25an eta 30an izango dira beste maximoak.

Hilaren 11tik 26ra, egunsentiaren aurretik, Argi zodiakala ikusi ahal izango da ekialde ipar-ekialdeko zeruhertzean.

Hilaren azken egunetan, Artizarra, Marte eta Jupiter ikusi ahal izango dira egunsentiaren aurretik.

- Teleskopioarekin:

50x igoerako teleskopioarekin, Artizarraren fasea ikusi daiteke.

ILARGIA URRIAN

01 20:15an, konjuntzio geozentrikoan Tauroko pleyadeekin, 8,6^ora.

02 13:06an, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin.

04 gehieneko librazioa longitudean (l = 7,9^o) eta latitudean (b = 6,9^o).

04 21:07an, Ilbehera.

08 19:56an, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 3,2^ora.

08 20:01an, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, 0,7^ora.

09 14:05an, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 3,3^ora.

09 21:24an, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 2,6^ora.

11 10:54an, goranzko nodotik pasatuko da.

11 11:12an, konjuntzio geozentrikoan Merkuriorekin, 0,9^ora.

11 13:04an, Apogeoetik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 406.400 km (aurreko perigeoan baino 49.518 km gehiago).

13 00:07an, Ilberria.

16 14:06an, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 2,9^ora.

17 01:55an, konjuntzio geozentrikoan Eskorpioko Antares izarrarekin, 9,5^ora.

19 librazio minimoa latitudean (b = -6,8^o). Krisiaren Itsasoa ikusi daiteke.

20 librazio minimoa longitudean (l = -6,9^o).

20 20:32an, Ilgora.

23 17:16an, konjuntzio geozentrikoan Neptunorekin, 2,9^ora.

25 07:33an, goranzko nodotik pasatuko da.

26 12:55an, Perigeoetik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 359.328 km (aurreko apogeoan baino 49.072 gutxiago).

27 12:06an, ehiztarien Ilbetea.

29 06:35an, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Pleyadeekin, 8,6^ora.

29 21:32an, Tauroko Aldebaran izarraren izkutapena, 22:33an berragertuko da.

31 librazio maximoa latitudean (b = 6,7^ora).

PLANETAK URRIAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (hilaren 7tik aurrera ikusiko da) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Hilaren 7tik Aurrera, behaketarako garai aproposan aurkituko da, gauaren amaieran ekialdeko zeruhertzean ikusi daiteke. Elongazio maximoan hilaren 16an. Igoera zuzena 12h eta 1h artean, deklinazioa -0,4 eta -7^o bitarte. Hilabete guztia Virgon emango du. Magnitudea 4,0tik -1,0ra igoko du.

Artizarra (gauaren amaieran ikusiko da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Hilaren 1ean, eguzkia baino hiru ordu eta 45 minutu lehenago aterako da, eta iha lau ordu lehenago 31an. Igoera zuzena 10h eta 11h artean, deklinazioa 14^o eta 4^o bitarte. Hilabete guztia Leone mango du. Magnitudea gutxitu egingo zaio -4,6tik -4,4ra.

Hilaren 8an Leoko Regulo izarraren ondoan ikusi daiteke.

Hilaren 25an Jupiterren ondoan ikusi daiteke.

Marte (gauaren amieran ikusiko da) orbita-abiadura 86.760km/h

Hilaren 1an eguzkia baino hiru ordu lehenago azalduko da, eta lau ordu lehenago 31an. Igoera zuzena 10:30h eta 11:30h artean, deklinazioa 11° eta 4° bitarte. Hilabete guztia Leon. Magnitudea apur bat igoko du 2,1tik 2,0ra.

Hilaren 17an, Jupiter ondoan ikusiko da.

Jupiter (gauaren amieran ikusiko da) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Hilaren 1an, Eguzkia baino bi ordu eta 20 minutu lehenago aterako da, eta lau ordu t'erdi lehenago 31an. Igoera zuzena 11h, deklinazioa 8° et 6° bitarte. Hilabete guztia Leon. Magnitudea apur bat igoko du -1,7tik -1,8ra.

Hilaren 17an, Marte ondoan ikusiko da.

Hilaren 25an, Artizarraren ondoan ikusiko da.

Saturno (gau hasieran ikusiko da) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Hilaren 1an, eguzkia sartu eta bi ordu eta 20 minutu beranduago ezkutatu da, eta ordu t'erdi baino gutxiago 31an. Igoera zuzena 16h, deklinazioa -19° . Hilabetea Libran hasiko du eta Eskorpion amaituko du. Magnitudea apur bat igoko du 0,6tik 0,5ra.

Hilaren 6an, 09:11 Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Urano (gau hasieratik ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Oposizioan hilaren 12an. Momentu egokia teleskopio on batekin ikusteko. Igoera zuzena 1h, deklinazioa 7° . Hilabete guztia Piscisen. Magnitudea 5,7an mantenduko da.

Neptuno (gau guztian ikusiko da) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Bere erretrogradazio mugimendu mantsoan darrai. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -9° . Hilabete guztia Akuarion emango du. Magnitudea 7,8tik 7,9ra jetsiko da.

URRIKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

01 Asteartea. Eguedian, Juliotar egutegiko 2.457.297 eguna hasiko da.

Egunaren iraupena 11 ordu eta 45 minutukoa izango da hilaren 1ean, eta 10 ordu eta 20 minutu 31an.

05 19:20an, lurra eguzkitik unitate astronomiko batetara zehazki pasako da: 149.597.870,691 km edo 8,316746 argi minutu.

09 Lurra 21P Giacobini-Zinner kometak utzitako lorratza zeharkatuko du. Kometa honek 6,62 urteko periodoa du. Honek sortzen ditu Draconidas edo Giacobinidas izeneko izer iheskorak. Hilaren 6tik 10ra ikusi ahal izango dira. Behaketarako egoera aproposa.

10 Lurra 2P Encke kometak utzitako lorratza zeharkatuko du. Kometa honek 3,3 urteko periodoa du. Honek sortzen ditu Tauridas sur izeneko izer iheskorak. Hilaren 10tik azaroaren 20ra ikusi ahal izango dira. Behaketarako egoera aproposa.

15 Hegiraren 1437. Urtea hasiko da egutegi musulmanean.

21 Lurra, bigarren aldiz urtean, Halley kometak utzitako hauts lorratza zeharkatuko du, 76 urteko periodoa du (periheliotik pasatzen azken aldia 1986ko otsailan izan zen). Honek sortzen ditu Orionidas izeneko izer iheskorak. Hilaren 2tik azaroaren 7ra ikusi ahal izango dira. Konkordun ilgora laister ezkutatu da, ez du behaketa asko oztopatuko.

23 Astrologiaren arabera, eguzkia Eskorpion sartzen da (210°). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.

25 Europear komisioak neguko ordutegia Urriko azken igandeko 02:00an hasiko dela finkatu du. Ordulariek ordu bat atzera egin beharko dute 2016ko Martxoaren azken iganderate.

31 18:56an, Eguzkia itxuraz Librako konstelazioan sartuko da ($217,03^\circ$).